**2009ko ABENDUAREN 17ko UDALBATZARRA**
PLENO DE 17 DE DICIEMBRE DE 2009

**BERTARATUAK /** ASISTEN**:**

**ALKATEA /** ALCALDE: **JOSU IRATZOKI AGIRRE**

**ZINEGOTZIAK** / CONCEJALES**:**
**AMAYA TELLECHEA INDA, RAMON ELGORRIAGA ERRANDONEA, AINTZANE ARTOLA URRUTIA, HELENA SANTESTEBAN GUELBENZU, RAFAEL ECHEVERRIA PERURENA, SANTIAGO ALZUGUREN MATXIKOTE, Mª SOL MARGARITA TABERNA IRAZOQUI, JON ABRIL OLAETXEA.**

**IDAZKARIA** / SECRETARIA: **PILAR CHUECA INTXUSTA.**

**BERTARATU EZ DIRENAK /** NO ASISTEN:
**ALFREDO GOYENECHE INÉS, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA (senidea ospitalean/** familiar hospitalizado**).**

**Tokia: BERAko Herriko Etxea.**
**Eguna: 2009-12-17**
**Ordua: 20:30**
**Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia**

Lugar: Casa Consistorial de BERA.
Día: 17-12-2009
Hora: 20:30
Tipo sesión: ordinaria, 1ª convocatoria.

**TRATATZEKO GAIAK:**

ASUNTOS A TRATAR:

**1.- AZKENEKO AKTA ONARTZEA.-**

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

**2009ko azaroaren 19an egindako bileraren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DA.**

Vista el acta de la sesión celebrada el día 19 de noviembre de 2009, por unanimidad SE APRUEBA

**Santiago Alzuguren zinegotzia atera da hurrengo puntuan interesatua baita.**

El concejal Santiago Alzuguren se ausenta por ser interesado en el siguiente punto.

**2.- HIRI-LURZORUKO 251. JARDUKETA ASISTEMATIKOAN UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA XEHE-**

2.- DESESTIMACIÓN APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL EN LA

**KATUA HASIERA BATEKO ONESPENA EZ ONARTZEA: F. ALZUGUREN ETA BESTE BATZUK.**

ACTUACIÓN ASISTEMÁTICA 251 EN SUELO URBANO: F. ALZUGUREN Y OTROS.

*Aho batez, hurrengo erabakia hartu dute:*

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Hiri-lurzoruan 251. Jarduketa Asistematikoan Udal Plan Orokorraren aldaketa xehekatua egiteko eskaera, FELIPE ALZUGUREN MACHICOTE eta BESTE BATZUK sustatua.**

Vista solicitud de modificación pormenorizada del Plan General Municipal en la Actuación Asistemática 251, suelo urbano, promovido por FELIPE ALZUGUREN Y OTROS.

**Dokumentazioa: Berako Udal Plan Orokorraren Aldaketa Xehekatua Juan I. Oyarzabal arkitektoak egina eta 2009ko uztailaren 28an Arkitektoen Elkargoak ikus-onetsiak.**

Documentación: Modificación Pormenorizada del Plan Municipal de Bera para la Asistemática 251 redactado por el arquitecto Juan I. Oyarzabal y visado por el Colegio de Arquitectos el 28 de julio de 2009.

**Ikusirik, horri buruz udal arkitektoak 2009ko azaroaren 17an eta Idazkaritzak 2009ko azaroaren 27an eginiko txostenak.**

Vistos informes realizados al respecto por el arquitecto municipal de 17 de noviembre de 2009 y por Secretaría el 27 de noviembre de 2009.

**Kontuan hartuz, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 52. artikuluari jarraikiz, gehitu nahi duten lau etxebizitzetatik, bederen, bi babes publikoko araudiarekin loturiko etxebizitzak izan behar direla.**

Teniendo en cuenta que de conformidad con el artículo 52 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo de las cuatro viviendas que se pretenden ampliar dos, por lo menos, tienen que estar sujetas algún régimen de protección pública.

**Kontuan hartuz, Babes Publikoko Araudiari jarraikiz eraiki berean ezin direla etxebizitza babestuak eta libreak izan.**

Teniendo en cuenta que la normativa sobre Protección Oficial no permite en un mismo edificio viviendas libres y viviendas protegidas.

**Hirigintza eta Lurraldearen Antolamenduari buruzko 35/02 Foru Legearen 74. artikuluarekin bat etorriz.**

De conformidad con el artículo 74 de la Ley Foral 35/02 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

**Gehiengo absolutua betea izanik, ERABAKI DA:**

Por la mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

**1) FELIPE ALZUGUREN MACHICOTE eta BESTE BATZUk aurkeztutako Hiri-lurzoruan 251. Jarduketa Asistematikoan Udal Plan Orokorraren Aldaketa Xehekatua hasiera bateko onespena ez onartzea lehen emandako arrazoiengatik (Honekin batera lehen aipatu den arkitektoaren**

1) No aprobar inicialmente la Modificación Pormenorizada del Plan General Municipal en la Actuación Asistemática 251 del suelo urbano presentado por FELIPE ALZUGUREN MACHICOTE por las razones antes expresadas. (Se adjunta el informe del arquitecto antes reseñado)

**txostena bidaliko zaio).**

**2) Erabaki hau interesatuei bidaltzea.**

2) Remitir este acuerdo a los interesados.

**Santiago Alzuguren zinegotzia berriro bertaratu da.**

El concejal Santiago Alzuguren se incorpora nuevamente a la sesión.

**3.- ITZEA KARRIKA ZOLATZEKO OBREN PROIEKTUA ETA INBERTSIOAREN EKONOMIA ETA FINANTZA PLANA ONESTEA ETA OBRA FINANTZATZEKO KONPROMISOA.**

3.- APROBACIÓN PROYECTO OBRAS DE PAVIMENTACIÓN DE CALLE ITZEA Y DEL PLAN ECONÓMICO-FINANCIERO DE LA INVERSIÓN Y COMPROMISO DE FINANCIACIÓN DE LA OBRA.

***Jon Abrilek, Aralarren izenean, abstenitu behar direla dio gai hau Hirigintza batzordean ikusi ez delako eta proiektua ezagutzea nahi dute.***

*Jon Abril en nombre de Aralar, manifiesta que se van a abstener porque este tema no se ha visto en la Comisión de Urbanismo y quieren conocer el proyecto.*

***Beste EAko zinegotziak eta EAJ-PNVko zinegotzia bat egin dute Jon Abrilek esandakoarekin.***

*Los otros concejales de EA y de EAJ-PNV se adhieren a lo señalado por Jon Abril.*

***Beraz, bozketa egin ondoren, 5 abstentzio eta 4 aldeko botoekin, honako erabakia hartu dute:***

*Por lo que, tras la votación con 4 votos a favor y 5 abstenciones, se adopta el siguiente acuerdo:*

**2009ko urriaren 5ean Nafarroako Gobernuak onartutako Toki Inbertsioen Planean “Itzea karrika zolatze”ko obra sartu dute.**

En el Plan de Inversiones Locales aprobado por el Gobierno de Navarra el 5 de octubre de 2009 se ha incluido la obra de “Pavimentación de la calle Itzea”.

**16/2008 Foru Legearen 16 artikulua eta 5/2009 Foru Dekretuaren 44. artikuluari jarraikiz.**

De acuerdo con lo establecido en el artículo 16 de la Ley Foral 16/2008 y el 44 del Decreto Foral 5/2009.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) “Itzea karrika zolatze”ko proiektua, 2009ko azarokoa, Altair Ingeniaritzak egina, onestea.**

1) Aprobar el proyecto de “Pavimentación de la calle Itzea”, de noviembre de 2009, redactado por Altair Ingeniería.

**2) 2009ko abenduaren 19an Kontuhartzailetzak eginiko inbertsio honen ekonomia eta**

2) Aprobar el plan económico y financiero de esta inversión realizado por Intervención de

**finantza plana onestea.**

fecha 19 de diciembre de 2009.

**3) Obra honen finantziazioa 16/2008 Foru Legearen 7. artikuluko b), c) d) eta e) letretan aurreikusitako baliabideetako bat erabiliz osatzeko Udal konpromisoa hartzez; hain zuzen ere, inbertsioa Nafarroako Tributuetako partaidetza funtsaren kargura edo beste erakunde publiko edo pribatuen ekarpenen bidez osorik finantzatzerik ez dagoen zatia osatzekoa.**

3) Manifestar el compromiso de este Ayuntamiento de financiar con algunos de los recursos previstos en las letras b), c), d) y e) del artículo 7 de la Ley Foral 16/2008 la parte de la inversión que no alcance la financiación con cargo al Fondo de Participación en los Tributos de Navarra o a aportaciones de otros organismos públicos o privados.

**4) Erabaki hau eta orain onetsi den dokumentazioarekin batera Toki Administrazio Departamentura bidaltzea.**

4) Remitir este acuerdo junto con la documentación ahora aprobada al Departamento de Administración Local.

**4.- BERAKO IBAI GUNEAN INTERBENTZIO AZTERKETA ETA UDAL INSTALAZIOETAN URAREN INGURUGIROKO AUDITORETZA EGITEKO HITZARMENA ONESTEA: NAFARROAKO INGURUMEN ARLOKO BALIABIDE ZENTROA.**

4.- APROBACIÓN DEL CONVENIO PARA LA REALIZACIÓN DE UNA AUDITORIA AMBIENTAL DE AGUA EN LAS INSTALACIONES MUNICIPALES Y UN ESTUDIO DE INTERVENCIÓN EN EL ESPACIO FLUVIAL DE BERA: FUNDACIÓN CENTRO DE RECURSOS AMBIENTALES DE NAVARRA.

***Alkatek gaia azaldu eta, aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*El Alcalde explica el tema y, por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Berako ibai gunean interbentzio azterketa eta udal instalazioetan uraren ingurugiroko auditoretza egiteko hitzarmenaren testua, Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroak bidalia.**

Visto texto del convenio para la realización de una auditoria ambiental de agua en las instalaciones municipales y un estudio de intervención en el espacio fluvial de Bera remitido por la Fundación Centro de Recursos Ambientales de Navarra.

**ERABAKI DA:**

SE ACUERDA:

**1) Berako ibai gunean interbentzio azterketa eta udal instalazioetan uraren ingurugiroko auditoretza egiteko hitzarmena onestea.**

1) Aprobar el texto del convenio para la realización de una auditoria ambiental de agua en las instalaciones municipales y un estudio de intervención en el espacio fluvial de Bera.

**2) Josu Iratzoki Agirre Alkatea Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide Zentroa eta Udalaren arteko solaskide izendatzea.**

2) Nombrar interlocutor entre el Ayuntamiento y el Centro de Recursos Ambientales de Navarra al Alcalde Josu Iratzoki Agirre.

**3) Nafarroako Ingurumen Arloko Baliabide**

3) Remitir este acuerdo junto con 3 ejemplares de este convenio al Centro de Recursos Am-

**Zentrora erabaki hau hitzarmenaren 3 aleekin batera bidaltzea.**

bientales de Navarra.

**5.- TOKI INBERTSIORAKO FONDO ESTATALAREN KARGURA EGINIKO HAURTZAINDEGIKO OBRAREN ETA MATZADA PARKEA EGITEKO OBRAREN ALDAKETAK ONESTEA.**

5.- APROBACIÓN DE LAS MODIFICACIONES DE LAS OBRAS DEL PARQUE MATZADA Y DE LA OBRA EN LA GUARDERÍA REALIZADAS CON CARGO AL FONDO ESTATAL DE INVERSIÓN LOCAL.

***Aho batez, honako erabakia hartu dute:***

*Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:*

**Ikusirik, Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko Haurtzaindegiko obran izandako aldaketei buruz Obra Zuzendaritzak eginiko txostena, 2009ko abenduaren 17koa.**

Visto informe de la Dirección de Obra de fecha 17 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra de la Guardería llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local.

**Ikusirik, Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko Matzada Parkea egiteko obran izandako aldaketei buruz Obra Zuzendaritzak eginiko txostena, 2009ko abenduaren 10ekoa.**

Visto informe de la Dirección de Obra de fecha 10 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra del Parque de Matzada llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local.

ERABAKI DA:

SE ACUERDA:

**1) Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko Haurtzaindegiko obran izandako aldaketak, Obra Zuzendaritzak 2009ko abenduaren 17ko txostenean agertutakoak, eta horiei dagokien obra ziurtagiria onestea.**

1) Aprobar el informe de la Dirección de Obra de fecha 17 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra de la Guardería llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local y la subsiguiente certificación de obra.

**2) Toki Inbertsiorako Fondo Estatalaren kargura eginiko Matzada Parkea egiteko obran izandako aldaketak, Obra Zuzendarizak 2009ko abenduaren 10eko txostenean agertzen direnak, eta horiei dagokien obra ziurtagiria onestea.**

2) Aprobar el informe de la Dirección de Obra de fecha 10 de diciembre de 2009, sobre las modificaciones realizadas en la obra del Parque de Matzada llevada a cabo a cargo del Fondo Estatal de Inversión Local y la subsiguiente certificación de obra.

**6.- TOKI IRAUNKORTASUN ETA ENPLEGURAKO ESTATUAREN FONDOAN**

6.- OBRAS A SOLICITAR EN EL FONDO ESTATAL PARA EL EMPLEO Y SOSTENI-

**ESKATZEKO OBRAK.**

BILIDAD LOCAL.

***Gai honi buruz, honako adierazpenak izan dira:***

*Sobre este tema se realizan las siguientes intervenciones:*

***Mª Sol M. Taberna:***
***Gai sartu da Osoko Bilkuran batzordeetan tratatu gabe.***

*Mª Sol Taberna:*
*El tema se ha traído sin tratarlo en las comisiones.*

***Jon Abril:***
***Frotoitik aparte, beste gauzak daude egiteko, alegia, Haurtzaindegia bukatzea, Administrazio elektronikoa, Herriko Etxeko 2. solairua, Belandetako hornidura …..***

*Jon Abril:*
*Aparte del frontón hay otras más cosas a hacer, terminar la guardería, la Administración electrónica, la 2ª planta del Ayuntamiento, el amueblamiento de Belandeta……*

***Alkatea:***
***Honi buruz e-maila bidali zuen eta inork ez dio erantzunik egin.***

*El Alcalde:*
*Sobre este mandó un e-mail y nadie le contestó nada.*

***Mª Sol M. Taberna:***
***Beste bilera batean tratatuko zela uste zuten.***

*Mª Sol M. Taberna:*
*Pensaban que se trataría en una reunión.*

***Helena Santesteban:***
***Frontoiko obra ez zaio konbentzitzen, agian ba egin behar da zerbait, baina jakin behar da zelako frontoia nahi dute eta hori erabaki behar da.***

*Helena Santesteban:*
*Lo del frontón no le convence, igual sí que hay que hacer algo, pero hay que decidir qué tipo de frontón se quiere.*

***Holako eztabaidarekin segitu ondoren gaia mahai gainean gelditu da, hau beste bilera batean tratatzeko.***

*Tras continuar la discusión en estos términos el asunto queda pendiente para tratarlo en otra reunión.*

**7.- UDAL ERAIKINETATIK SINBOLO ERLIJIOSOAK KENTZEKO ARALARREN MOZIOA.**

7.- MOCIÓN DE ARALAR SOBRE RETIRADA DE SÍMBOLOS RELIGIOSOS DE LOS EDIFICIOS MUNICIPALES.

***Jon Abrilek mozioa irakurri du.***

*Jon Abril lee la moción.*

***Josu Iratzoki:***
***Ados dago baina bandoa jartzeari eta prentsara bidaltzeari ez dizkio beharrik ikusten.***

*Josu Iratzoki:*
*Está de acuerdo pero no ve la necesidad de poner bando y remitirlo a la prensa.*

***Helena Santesteban:***
***Estatua akonfesionala da Konstituzioaren arabera, eta erligikoa gune pribatuan egon behar zen. Gaia normaltzat hartu behar zen nahiz eta jendeak ez interpretatu horrela eta pentsatu beste gauzetaz (espaloietaz, …. eta horrelako gauzetaz) arduratu behar direla.***

*Helena Santesteban:*
*El Estado es aconfesional según la Constitución y lo religioso debería estar en el ámbito privado. El tema debería ser tomado como normal aunque la gente no lo va a interpretar así y pensará que debemos ocuparnos de otras cosas (aceras……, y este tipo de cosas).*

***Santiago Alzuguren:***
***Estatua laikoa da eta hau pribatuan egon behar zen, hala ere Bando eta prentsari ez zaizkio ikusten horrenbeste garrantzirik.***

*Santiago Alzuguren:*
*El estado es laico y esto (lo religioso) debería estar en lo privado, aun así a lo del bando y prensa no se le debería de dar importancia.*

***Bozketa puntuz puntu egiten da eta emaitza hauxe ateri da.***

*Se lleva a cabo la votación punto por punto resultando lo siguiente:*

***Mozioaren !. eta 2. puntua denak ados.***
***3. puntuan: 2 boto alde (Aralarrekoak) eta 7 abstentzio (EA, EAJ-PNV eta alkatea eta beste hiru zinegotziak).***

*Todos de acuerdo en el punto 1 y 2 de la moción.*
*3. punto: 2 votos a favor (Aralar) y 7 abstenciones (EA, EAJ-PNV, Alcalde y los otros tres concejales).*

***Beraz, mozioa onartu da, honako testua izanik:***

*Por lo que la moción se aprueba, siendo el texto el siguiente:*

**Udal eraikinetatik sinbolo erlijiosoak kentzeko Aralarren mozioa**

Gizarte akonfesional batean bizi bagara ere, oraindik urratsak eman behar dira gizarte laiko baterako bidean. Pertsona guztien eskubideak errespetatzeko beharra dago, eta horretan, instituzio ezberdinek dugu zeregina. Lege desberdinek aitortzen dute erlijio askatasuna, eta administrazio publikoei dagokigu askatasun hori bermatzea. Erlijio praktikak eremu pribatura mugatu behar dira. Gizarte akonfesional batean administrazio publikoek ezin dute inolako atxikimendu edota laguntzarik eskaini inongo erlijio adierazpeni.

Sinismenak eta erlijio-praktikak eremu pribatura mugatu behar dira, eta hortaz, eremu publikoan edozein erlijiotako sinbolo kentzeko bideak paratu behar dira. Oraindik arrunta da eraikin publikoetan sinbolo erlijiosoak ikustea. Kontuan hartu behar da, gainera, horietako anitz "ohituraz" egon izan direla eraikin horietan, eliza eta estatua bat ziren garai beretik, eta erlijio katolikoa erlijio "bakarra" zen garaietatik. Gaur egun, gure gizartea anitz aldatu da, eta erlijio kristauaz gain bertzelako erlijioak zein sineskerarik gabeko pertsonaz osatua dago gure herria. Errealitate guzti horiekiko errespetuagatik, eremu publikotik irudi erlijioso guztiak kentzeko beharra inoiz baino nabariagoa da.

Horregatik, honako erabakiak  hartzen ditu Berako Udalbatzak:

1. Berako Udalak edonolako sinbolo erlijioso kenduko du udal eraikin guztietatik hamabost eguneko epean: gurutzeak, saindu eta amabirjinen irudiak, edota bertzelako ikur eta irudiak.
2. Berako Udalak lan eginen du eremu publikoan herritar guztien sineskerak errespetatuak izan daitezen, eta eremu publikoan laizismoa bultzatuko du.
3. Erabaki honen berri emanen zaie udal eraikin guztietako arduradunei, komunikabideei eta herritarrei, ohiko bideak erabiliz.

**8.- ARAMAIOKO ALKATEARI ESKATUTAKO 9 URTETAKO INHABILITAZIO ZIGORRARI BURUZKO MOZIOA: ARAMAIOKO UDALA.**

8.- MOCIÓN SOBRE LA PETICIÓN DE 9 AÑOS DE INHABILITACIÓN AL ALCALDE DE ARAMAIO: AYUNTAMIENTO DE ARAMAIO.

***Alkateak mozioa irakurri du eta, aho batez, onartu dute:***

*El Alcalde lee la moción y, por unanimidad, se aprueba:*

1.- Udal honek bere babes osoa agertzen dio herriaren hitzari bide ematearen akusaziopean bederatzi urteko inhabilitazio zigorrari aurre egin behar dion Aramaioko alkateari; halaber, aipatu prozedura judiziala erabat bidegabea izaki akusazioa eta zigor eskaera erretiratzea eskatzen dio fiskaltzari, eta, bide beretik, prozedura bera bertan behera utz dezan eskatzen dio epaileari.

2.- Udal honek kezka handiaz hartzen du udal ordezkarien jarduera normala dena interes politiko jakin batzuen arabera judizializatzea eta herriari hitza emateagatik inhabilitazio zigorra eskatzea udalen autonomiaren aurkako eraso larri gisa hartzen du.

3.- Udal honek herriaren iritzia jakin nahi izate ezin dela delitu izan aldarrikatu nahi du, are gehiago herriari hitza ematea herritarren ordezkari garenon betebehar eta demokrazian sakontzeko ariketa bezala ulertzen dugu.

4.- Udal honek Abiadura Handiko Trena bezalako azpiegitura handien kasuan, baita udalerrien etorkizunean eragin handia izan dezaketen bestelako egitasmoen aurrean ere, toki erakundeen eta herritarren iritzia kontutan hartzea eta erabakigunea herritarrei zabaltzea oso beharrezkotzat jotzen du.

5.- Udal honek onartutakoaren berri emango dio Aramaioko udalari, Arabako Audientzia Probintzialari, bertako fiskaltzari zein inguruko hedabideei ere.

**9.- BANDOAK ETA ALKATEAREN EBAZPENAK.-**

9.- BANDOS Y RESOLUCIONES DE ALCALDÍA.-

**Honako bando eta Alkatearen ebazpen hauetaz jakinen gainean gelditu dira:**

Se dan por enterados de los siguientes bandos y resoluciones de la Alcaldía:

**1) Bandoak: 29/2009.**

**2) Ebazpenak: 2009ko azaroaren 16ko 244. ebazpenetik 2009ko abenduaren 10eko 255.era arte.**

1) Bandos: 29/2009.

2) Resoluciones: De la resolución nº 244 de 16 de noviembre de 2009 a la nº 255 de 10 de diciembre de 2009.

**Gai zerrendatik kanpo, premiazko bozketa egin ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo absolutua betea izanik, honako gai hauek tratatu dira:**

Fuera del orden del día, previa votación de urgencia, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida, se tratan los siguientes asuntos:

**10.- MUSIKA ESKOLEN EGOERARI BURUZKO MOZIOA: BERAKO MUSIKA ESKOLA.**

10.- MOCIÓN SOBRE SITUACIÓN DE LAS ESCUELAS DE MÚSICA: ESCUELA DE MÚSICA DE BERA.

***Jon Abrilek mozioa irakurri eta azaldu egin du.***

*Jon Abril lee la moción y explica la situación.*

***Horren ondoren, aho batez, onartu dute, holako testua izanik:***

*Tras lo cual, por unanimidad, se aprueba con el siguiente texto:*

Berako Musika Eskolako Batzarrak Berako Udalbatzarrari

2009ko abenduaren 10ean, Berako Musika Eskolako Batzarrak, ohiko bileran, Nafarroako Gobernuak 2010erako aurreikusi dituen aurrekontuak ikusirik, eta egoerak txarrera egiten jarraitzen duela kontuan hartuta, honakoa helarazi nahi diogu Berako Udalbatzarrari, Osoko Bilkuran aztertu eta onartu dezan.

Berako Udalak Nafarroako Gobernuak 2010erako aurreikusiak dituen aurrekontuetan Musika Eskoletarako dirulaguntzen partidan emango den jaitsierarekin bere kezka agertu nahi du. Berriz ere, Nafarroako Gobernuak bere ardura eta berari dagokion ahalegin ekonomikoa alde batera utzi eta udalen bizkar jarri du Musika Eskolen finantziazioa.

Guztiz deitoragarria iruditzen zaigu Musika Eskolek inolako hitzarmenik ez edukitzea, eta finantziazioa urteroko dirulaguntzen arabera arautuak egotea. Nafarroako Gobernuari honakoa eskatzen diogu:

1. Gure haserrea eta kezka agertu nahi dugu 2010eko Nafarroako Gobernuak onartuko dituen aurrekontuetan Musika Eskoletarako udalei zuzendutako dirulaguntzak murriztuko direlako. 2.225.001 euro bideratuko ditu Gobernuak Nafarroa osoko Musika Eskoletarako, iaz baino 200.000 euro guttiago. Nafarroako Gobernua ez da betetzen ari arlo honetan bere garaian hartutako konpromisoa, eta gero eta txikiagoa da Musika Eskolen finantziazioan duen pisua, guztia udalen eta gurasoen esku utzirik. Berako kasuan, errate batera, aurrekontu osoaren %9a baino ez du bere gain hartzen Nafarroako Gobernuak.
2. Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu arautu dezala, behingoan, Nafarroako Musika Eskolen egoera (pertsonala, titulazioak, finantziazioa, eskola-mapa, matrikulazioak, programazioa...).
3. Musika Eskolen finantziazioa urteroko dirulaguntza sistema baten bidez izan beharrean, Nafarroako Gobernuak Udalekin hitzarmenak sinatzea eskatzen dugu. Hitzarmen horien bidez, eskolen programazioa, pertsonalaren lan-baldintzak, eskolaren finantziazioa, matrikulazioak eta bestelako arloak arautzea exijitzen dugu.
4. Aitortu dezala Nafarroako Gobernuak musika eskolek egiten duten ekarpena gure herrien dinamizazioan, heziketa arloan eta musikaren formazioan. Etorkizuneko musikarien formaziorako oinarri-oinarrizko egiturak diren neurrian, beharrezko errekonozimendua aitortzea

eskatzen dugu, eta horretarako, Nafarroako Gobernuak beharrezko baliabideak jar ditzala. Soilik beharrezko baliabideak jarriz lortuko da kalitatezko heziketa bat bermatzea.

5. Erabaki honen berri Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Sailari, komunikabideei, herritarrei, Musika Eskolari eta talde parlamentario guztiei jakinaraziko zaie.

***Gai honi buruz ere, Barañaingo Udalak onartutako mozioaren berri eman zaio Udalari eta, aho batez, ere onartu dute:***

*Sobre este tema también, se pone en conocimiento la moción aprobada por el Ayuntamiento de Barañain, y por unanimidad, también se aprueba:*

1.- Instar a la Federación de Navarra de Municipios y Concejos la convocatoria extraordinaria y urgente de una reunión con los/as Alcaldes/as y representantes académicos de los Municipios y de las Escuelas de Música afectadas, respectivamente, para buscar una solución consensuada con el Gobierno de Navarra, a fin de proveer de financiación suficiente a las Escuelas Municipales de Música para al año 2010, mejorando sustancialmente la propuesta presupuestaria del Gobierno.

2.- Instar a la Federación Navarra de Municipios y Concejos a establecer las medidas oportunas conducentes al establecimiento de un modelo de financiación progresivo para las Escuelas Municipales de Música en el marco de una adecuada Planificación General de estas enseñanzas.

3.- Remitir el presente acuerdo a la F.N.M.C., al Gobierno de Navarra, a los Grupos Parlamentarios de Navarra y al Ayuntamiento de Barañain.

**11.- FUNVERAKO LAN ERREGULAZIORAKO ESPEDIENTEAREN AINTZINEAN MOZIOA: ARALAR.**

11.- MOCIÓN ANTE EL EXPEDIENTE DE REGULACIÓN DE EMPLEO EN FUNVERA: ARALAR.

***Jon Abrilek irakurri du mozioa eta honako adierazpenak egin dira:***

***Helena Santesteban:***
***Funverarena aprobetxatuz datorrena azpimarratu behar da, Zalain, kantinak ….., oraindik ez fondora ailegatu, Prestatu behar da Nafarroako Gobernuari presionatzeko, lan tailerrak, jarduera ekonomikoen nitxoak etabar eskatzeko.***

***Alkateak zera proposatu du:***
***Egonen dira langileen alde beti, berdin nork deituta sartzez mozioan.***
***Baita ere, Nafarroaren Gobernuan Funverari buruz izandako Alkateen bileraren berri eman du.***

***Horren ondoren, aho batez, alkateak errandako gehitzearekin, onartu dute hurrengo***

*Jon Abril lee la moción y se realizan las siguientes intervenciones:*

*Helena Santesteban:*
*Aprovechando lo de Funvera hay que hacer hincapié en lo que viene, Zalain, cantinas……, todavía no se ha tocado fondo. Hay que prepararse para presionar al Gobierno de Navarra para exigir talleres de trabajo, nichos de actividades económicas.*

*El Alcalde propone añadir a la moción que "estarán siempre a favor de los trabajadores, independientemente de quién realice la convocatoria".*
*También, informa sobre la reunión mantenida con el Gobierno de Navarra sobre Funvera.*

*Tras lo anterior, por unanimidad, añadiendo la propuesta del Alcalde, aprueban la*

***mozioa:***

*siguiente moción:*

**Berako Aralarren mozioa Funverako lan erregulaziorako espendientearen aitzinean:**

Funverako langileen egoeraren aitzinean, honakoa agertu nahi du Berako Aralarrek:

1. Gure elkartasuna agertu nahi diegu Funverako langileei, bizi duten egoera larriaren aitzinean. Abenduaren 2az geroztik egiten ari diren mugagabeko grebarekin bat egiten dugu.
2. Enpresak aurkeztutako EREak 55 langileren postuak desagertzearekin batera, kinka larrian uzten ditu gainerako lanpostuak ere, eta bidenabar, enpresaren etorkizuna bera.
3. Nafarroako Gobernuari eskatzen diogu berehalako neurriak har ditzala Baztan-Bidasoa eskualdean langabeziari aurre egiteko, eta horrelako sarraskirik gerta ez dadin enpresetan.
4. Berako Udalak bere esku dagoena eginen du lanpostu horiek bermatze aldera, eta horretarako, beharrezko bilerak egin eta kudeatuko ditu.
5. Horrez gain, BERAko Udala beti agertuko dela langileen alde berdin nork deituta adieraztea.
6. Erabaki honen berri komunikabideetara, Nafarroako Gobernura, Funverako Enpresa-Batzordera, Funverako agintariei eta talde parlamentari guztiei helaraziko zaie.

**12.- AMINETU HAIDAR SAHARAKO AKTIBISTAREN EGORENEN AURRE-AN, SAHARAKO HERRIAREN AUTO-DETERMINAZIO ESKUBIDERAKO MO-ZIOA: ARALAR.**

***Jon Abrilek mozioa irakurri du eta, aho batez, onartu dute.***

***Helena Santestebanek erran du Udala senidetu zen Saharako herriari ere bidaltzea eta beste guztiak ados daude.***

***Onartutako mozioa hauxe da:***

12.- MOCIÓN ANTE LA SITUACIÓN DE LA ACTIVISTA SAHARAUI AMINETU HAIDAR Y PARA EL DERECHO DE AUTODETERMINACIÓN DEL SAHARA: ARALAR.

*Jon Abril lee la moción y, por unanimidad, se la aprueban.*

*Helena Santesteban manifiesta que también se remita el acuerdo al pueblo del Sáhara con el que está hermanado el Ayuntamiento, estando de acuerdo los demás.*

*La moción aprobada es la siguiente:*

**Aminetu Haidar Saharako aktibistaren egoeraren aurrean, Saharako herriaren autodeterminazio eskubiderako Berako Aralar udal taldearen mozioa**

Hilabete da Aminetu Haidar Saharako aktibistak gose greba hasi zuela Espainiako Lanzaroteko aireportuan, bere eskubideen eta bere herrikoen defentsan. Horren aurrean, honakoa agertu nahi dugu:

1. Aminetu Haidar Saharako aktibistaren jarrera txalotu eta elkartasun osoa agertu nahi diogu.

2. Exijitu egiten dugu Mendebaldeko Saharan, berehala sartzeko eskubidea aitortu diezaiotela Marokoko agintariek, eta beharrezko ahalegin diplomatikoak egin ditzala Espainiako Gobernuak, zein nazioarteko eragileek.
3. Errespetatu daitezela Saharako herriaren eskubide zibil zein politikoak, eta NBEak aitortuta duen autodeterminaziorako eskubidea praktikan jar dadila. Espainiako Gobernuak Saharako herriarekiko duen ardura eta erantzukizuna kontuan hartuta, salatu nahi dugu aspaldian jokatzen ari den papera, eta Marokorekiko gehiegizko begirunea. Nazioarteak Saharan giza eskubide guztiak errespetatuak izatea eta bermatzearen alde lan egitea eskatzen dugu.
4. Egunotan Euskal Herrian zehar deituta dauden mobilizazioetan parte hartzera deitzen dugu.
5. Honen berri herritarrei, komunikabideei, Nafarroako Frente Polisarioari, Saharako Bir Enzara herriari eta Espainiako Gobernuari jakinaraziko zaio.

**13.- EUSKALDUNON EGUNKARIAREN KONTRAKO AUZIAREN AITZINEKO MOZIOA: ARALAR**

***Jon Abrilek mozioa irakurri ondoren Alkateak proposatu du gehitzea "Hau dela beste bat gehiago Euskal Herria kriminalizatzeko Planean" eta beste guztiak ados agertu dira.***

***Amaia Telletxeak erran du ez ahazteko honen ondoren beste epaiketa heldu dela eta hemengo zinegotzi ohi bat dagoela.***

***Hauxe da, literalki jarrita, aho batez, onestutako mozioa:***

13.- MOCIÓN ANTE EL JUICIO CONTRA EUSKALDUNON EGUNKARIA: ARALAR.

*Tras la lectura de la moción por Jon Abril el Alcalde propone añadirle: "Esto es una actuación más dentro del Plan de criminalizar a Euskal Herria", mostrando el resto de los presentes su conformidad.*

*Amaia Telletxea señala que no hay que olvidar que tras éste viene otro juicio en el que se encuentra un ex concejal de este Ayuntamiento.*

*Seguidamente se transcribe literalmente la moción aprobada por unanimidad:*

**Euskaldunon Egunkariaren kontrako auziaren aitzinean, Berako Aralarren mozioa**

Aste honetan bertan hasi da Madrilgo Entzutegi Nazionalean Euskaldunon Egunkariaren kontrako auziaren epaiketa. 10 lagun daude auziperatuak, urtetako kartzela zigorra eta milioika eurotako isuna eskatu dute AVT eta Dignidad y Justicia erakundeek auzipetuen kontra. Fiskalak delitu zantzurik ez dagoela eta epaiketa bertan behera uzteko eskatu arren, epaileek aitzinera egin dute, eta epaiketarekin hasi dira.

Euskarazko egunkari bat egiteagatik daude auzipetuak 10 pertsona hauek, eta ETAko kide izatea egozten zaie horregatik bertan, euskarazko komunikabide bat argitaratzeagatik.

Honen aurrean, honakoa agertu nahi du Berako Udalbatzak:

1. Euskaldunon Egunkariko auzipetuei gure elkartasun osoa agertu nahi diegu.
2. Epaiketa bertan behera gelditzea eskatzen dugu, delitua ez dutelako erakundeek egiten, eta euskarazko komunikabide bat argitaratzea ez da inoiz delitu. Epaiketa ez da behar bezainbesteko berme demokratikoekin egingo, eta prozedura, hasiera-hasieratik guztiz kutsatua

egon da. Aznarren gobernuak bultzatutako polizia operazio zentzugabe baten ondorioz iritsi da epaiketa, eta guztiz politizatua jarraitzen du epaiketak.

3. Euskararen normalizazioan Euskaldunon Egunkariak, euskarazko bertze komunikabideek bezala, berebiziko ekarpena egin diote. Lan hori aitortu nahi du Berako Udalak, eta aurrerantzean ere euskarazko komunikabideak bultzatzen jarraitu dezaten animatu nahi ditugu auzipetuak.
4. Adierazpen askatasunaren eta informazio eskubidearen kontrako eraso bortitza da beti egunkari bat ixtea. Inongo demokraziatan onartu ezin den ekintza da. Deitoratu egiten dugu Egunkariaren itxiera, bere egunean baztertu genuen bezala, eta sortutako kalteak konpontzea eskatzen diogu Espainiako Estatuari.
5. Auzi hau Euskal Herria kriminalizatzeko Planean beste bat gehiago dela adieraztea.
6. Akordio honen berri auziperatuei, Berako herritarrei, komunikabideei, Espainiako Gobernuari eta Entzutegi Nazionalari jakinaraziko zaie.

**14.- ESKARIAK ETA GALDERAK. BESTE UDAL ORGANOEN KONTROLA.**

14.- RUEGOS Y PREGUNTAS. CONTROL DE LOS DEMÁS ÓRGANOS DE LA CORPORACIÓN.

**Ez dira burutu.**

No se producen.

**Besterik gabe, Alkateak bilera bukatutzat eman du 21:30etan.**

No habiendo más asuntos, el Alcalde levanta la sesión a las 21:30 horas.

**O.E. ALKATEA/** V.B. EL ALCALDE
Josu Iratzoki Agirre

**IDAZKARIA/** LA SECRETARIA
Pilar Chueca Intxusta